



Joseba Ugalde,
Presidente de la EMF
EMFren lehendakaria

Buenos tiempos para la lírica

ESTE era el título de una canción que por los años 80 nos motivaba a actuar como lo que éramos, unos jóvenes inexperimentados y ávidos de buscar experiencias. En realidad el título decía lo opuesto, pero a mí particularmente me gustaba pensar que la verdad era al revés. Sí, eran buenos tiempos para una forma de hacer más acorde con otros gustos musicales.

Ha transcurrido mucho tiempo desde entonces. La inexperiencia dejó paso a la veteranía, las experiencias marcaron nuestros pasos y nos convirtieron en lo que somos. En la montaña pasamos muchos días y meses de nuestra vida, ganamos amigos –algunos hasta hoy– y dejamos huellas indelebles en nuestra piel, que marcaron profundamente nuestra existencia. Sí, la montaña nos marcó, nos hizo mejores –es presuntuoso– y desde una actividad frenética fuimos pasando a un ritmo más sosegado, a buscar nuestro camino entre cimas más modestas.

Con el paso de los años aprendimos a ser más cautos en nuestros objetivos, pero siempre manteniendo la pasión y una forma de hacer motivadora para nuestras aspiraciones. Nos hicimos mayores, aunque todavía jóvenes, y dejamos de mirar desde la barrera para comprender la importancia de contribuir y construir un futuro para nuestra actividad.

Creo poder afirmar que empezamos a reunir y sumar la experiencia, la pasión, el saber hacer y una cierta especialización, que nos impulsó a seguir adelante y a confluír en este Proyecto que hoy os presentamos: somos jóvenes, pero en cierta manera mayores para los tiempos que corren en nuestra actividad. No obstante, nos animamos a presentar esta Candidatura que hoy encabezo.

Siempre he sido un lector voraz. Las obras de literatura de montaña me han acompañado sin cesar, pero siempre hubo una figura que me impresionó: Alex MacYntyre, alpinista inglés visionario que en los años 80 firmó páginas de oro para la historia del Alpinismo. Su cita más célebre ha sido para mí una guía que ahora remarco: “la cima era nuestra pasión, pero el estilo nuestra obsesión”.

Espero así que ese estilo que queremos remarcar en este nuevo equipo de Junta Directiva sea acorde con los tiempos. Que se base en la claridad, la transparencia y el trabajo en equipo. Que los hechos acompañen a nuestras palabras y, en consecuencia, las iniciativas que queremos impulsar sean acordes con las mismas.

Por ejemplo, la creación de una Comisión de Control surgida de la Asamblea, que verifique el buen hacer de esta Junta y transmita a todos los clubes la tranquilidad derivada de una gestión transparente. O bien, el hecho de que propongamos impulsar iniciativas destinadas a promover y fomentar la actividad de Mujer y Montaña, no como algo diferenciado, sino como un valor propio de los tiempos que corren en nuestro montañismo. Y por supuesto, fomentar la participación de los clubes mediante un foro abierto, siendo además receptivos a sus propuestas.

Un equipo que pretende con estas iniciativas trabajar por el mejor de los futuros posibles para nuestro montañismo, y que ya es presente: el de nuestros hijos e hijas.

En definitiva, que compartamos el ritmo de esa antigua canción: “corren buenos tiempos para la lírica”. Si no es así, ¡intentemos al menos que la melodía nos vaya acompañando!

Lirikarako sasoi egokia

80. urteen inguruan hor zehar zebilen kanta baten izenburu honek ginen moduan jardutera gonbidatzen gintuen. Izan ere, eskarmenturik gabeko gazteak ginen, esperientziez egarri haien bila ari ginenak. Egia esan, izenburuak kontrakoa zioen, baina errealitatea guztiz alderantzikoa zela pentsatzea nuen gustuko nik neuk. Bai, bestelako bolada musikalekin bat zetozen jarduteko moldeetarako sasoi egokia zen.

Oso aspaldiko kontuak dira hala ere. Esperientziarik ezaren ondoren eskarmentua etorri zen, esperientziek gure urratsak bideratu zituzten eta garen horretara eraman gintuzten. Geure bizitzaren egun eta hil asko eman genituen mendian, lagunak egin genituen han –hietako batzuk gaur artekoak– eta orban irmoak ere zizelatu zitzaizkigun azalean, geure gaur arteko izatea sakonki markatu zutenak. Bai, mendiak markatu gintuen, hobetu gintuen –handikeria dirudi–, eta jarduera ero-suhar batetik erritmo bareago batera iragan ginen, geure bidea gailur xumeagoen artean bilatzera.

Urteak joan urteak etorri, geure helburuetan apalagoak izaten ikasi genuen. Ordea betiere irrika bizirik mantenduz eta geure nahietarako jarduera-molde eragingarria erabiliz. Koskortu ginen, oraindik gazte ginen arren, eta babeslekutik begira egoteari utzita hasi ginen ulertzen zein garrantzi handia duen laguntza emateak eta geure jarduerarako etorkizun bat eraikitzeak.

Uste dut baieztza dezakedala, orduan hasi ginela metatzen eta biltzen esperientzia, irrika, jarduera-molde egokia eta nolabaiteko espezializazioa, eta horrek bultzatu gintuen aurrera segitzera eta gaur aurkezten dizuegun Egitasmo honetan elkartzera: gazteak gara baina, nola edo hala, nagusiak geure jardueran boladan dabiltzan sasoiarako. Den legez dela, gaur ni buru nauen hautagaitza hau aurkeztera ausartu ginen.

Beti izan naiz irakurle amorratua. Mendi-literaturako lanak izan ditut lagun, baina beti egon da pertsonaia bat zirrara berezia sortu zidana: Alex MacYntyre, mendizale ingeles ameslaria, 80. urteetan Mendizaletasunerako urrezko orrialdeak sinatu zituena. Haren aipurik ezagunena, orain azpimarratzen dudana gida izan da niretzat: “helburu genuen gailurra gure irrika zen, baina jarduteko estiloa obsesio genuen”.

Zuzendaritza Batzorde berri honi eman nahi diogun estiloa gaurko garaiarekin bat etortzea espero dut, garbitasun, gardentasun eta lan-taldean oinarria izan dezan. Gertakariak gure hitzekin bat etor daitezten eta, ondorioz, bultzatu nahi ditugun egitasmoak ere haiekin adostasunean egon daitezten.

Adibidez, Asanbladatik ateratako Kontrol Batzorde baten sorrera, Zuzendaritza honen jardueraren egokitasuna egiaztatu eta mendizale taldeei kudeaketa garden baten ondoriozko lasaitasuna helaraziko diena. Edota, Emakumea eta Mendia jarduera abian jarri eta sustatzeko egitasmoak bultzatzea proposatzen dugularik, ez desberdina den zerbait bezala ulertuta, gure mendizaletasunean gaur egun abian diren sasoiaren balio berezko bezala baizik. Eta, jakina, mendizale taldeen parte hartzea foro ireki baten bidez sustatzea, haien proposamenei harrera egokia eginez.

Lan-talde bat, egitasmo hauekin gure mendizaletasunarentzat litekeen etorkizunik onenaren alde lan egingo duena, oraina ere badena: gure seme-alabena.

Finean, kanta zahar haren erritmoa parteka dezagun: “lirikarako sasoi egokia da”. Hala ez bada, saia gaitezen behintzat doinuak lagun gaitzala!